

AFRIKA'KO IPUIN / ALEGIAK



LEOIA EZ DA GIZAKIEN ERREGE

Batzutan besteen balioak ez doguz aintzat artzen eta gure arrokeriak bakarrak garala esaten dausku. Ondo diño Nijeria'ko alegi onek besteak aintzat artu bear doguzala.

Leoiak pizti guztiai bere jauregira deitu eutsen:

—Luzaro bizi zaitzela —esan eben piztiak eta leoiak esker ona agertu eban onelan:

—Dei egin dautzuet gizakiak piztien aurka daukezan ankerkeriak eta okerkeriak zelan gure artetik kendu aztertzeke.

Eztabaida luzea izan zan eta elefanteak esan eban eskola bat sortu bear zala eta pizi gazteai irakatsi euren gurasoen jakituria. Leoiak itaundu eban:

—Nor izan leiteke maisurik onena?

—Neu izango naz maisu —esan eban ieneak.

Leoiak ieneari itaundu eutsen, pizti gazteai zer irakatsiko eutsen. Eta ieneak erantzun eban:

—Agoa asko zabaltzen irakatsiko dautset orrelan ulu egin eta euren agiñak erakusteko. Eisan datozen gizakiak ikaratu egingo dira eta bakean itziko dautsee.

Baiña ori ez jakon atsegin izan erbiari. Bera lako pizti txikiak ezin ikaratu izango dabezela gizakiak, esan eban. Ieneak ez eukan erantzunik. Erbiak esan eban:

—Zergaitik ez dautsegu irakasten pizti gazteai bedar-artean euren buruak ezkututzen, usain txarreko beste gauzen artean.

Elefanteak barreka esan eban:

—Ai pizti txiki ta gizajo ori! Ni zelan oztenduko naz bedar artean?

Pizti guztiak barre egiten eutsoen erbiak esanari.

—Neu izango naz maisu! —esan eban txakalak.

Leoiak txakalari itaundu eutsen zer irakatsiko eutsen pizti gazteai.

—Nik? Iru gauza —esan eban txakalak— Janariak betiko lekuetan aurkitzen sarera ez jausteko.

Piztiak buruari eragiñez agertu eben txakala jakituna zala.

—Eta bigarren, ura edatera doazenean alboan egon eta buztanaren ura edan, egarria kendu arte.

Ieneak itaundu eutsen txakalari, gabetan lo zelan egiten eban.

—Orra noa oraintxe!

—Erantzun egizu laster —esan eban leoiak.

—Gabean —esan eban txakalak— an or emen ulu egiten dot eta zugatz-orrien artean etxuten naz lo. Eta orrien zaratea entzuten dodanean, itxartu eta ba-noa.

Pizti guztiak goratu eben txakalaren jakituria.

—Txakal jauna —esan eban leoiak—zu izango zara pizti gazteen maisu.

Piztiak ekarri ebezan euren umeak eskolara eta oneik zur entzuten eben txakalak irakasten eutsena, leoikumeak izan ezik.

—Zer da gizona? —itandu eban leoikumeak. Nik egunen baten aurkituko dot gizon bat eta neure erpakaz ilgo dot.

Egun baten leoikumeak ta erbiak ibiltera urten eben, eskolea amaituta eta gizon bat urreratu jaken. Leoikumea begira geratu zan, a gizona zala ba-ekialako.

—Izaki bakana, benetan —esan eban.

Gizakia leoikumeagana urreratu zanean, belauninkatu egin zan. Maitasunez iguzi eban leioia eta esan eban.

—Zure etxurea ez da beste piztien antzekoa, zergaitik ez zaitut iñoz ikusi nire aitaren jauregian?

Gizonak itzaltasun aundiaz erantzun eban:

Ni ez naz joaten jauregira zure aita agurtzera, lotsa nazelako. Ni ez naz beste piztien modukoa. Ule gitxi daukat eta buztanik be ez.

Orduan leoi gazteak gizonari agindu eutson bedarrezko txabola ba egiteko.

—Eguztitik neure burua estaltzeko zeozer bear dot —esan eban.

Gizonak egin eban txabolea ageakaz eta kordelakaz. Leoiagaz egoan erbiak ez eban lagundu, iges egin eban.

—Sartu, sartu txabolara, leoitxu goragarria! —esan eban gizonak. Ikusi gozatsu aurkitzen dozun zeure burua!

Leoikumea barruan egoanean, gizonari atea ixteko eskatu eutson eta olan egin eban. Gero abar eta bedar leorrak batu eta txabolearen inguruan ipiñi ebazan. Eta azkenean bedarrari sua emon eutson eta txabolea sutan jarri zan.

—Zu, ulebako ori! —esan eban leoikumeak- idegi egistazu atea. Ez nagizu emen itzi! Il egingo naz!

Eta gizonak erantzun eutson:

—Gaur, leoi arro orrek aurkitu dozu gizona! Zu ez zara izan erpakaz ni ilgo nozuna? Orain neure eskuetan zaukat?

—Ez nekian zer esaten neban —aldarrikatu eban leoitxuak negarrez—. Parkatu egizu nire erokeria eta atera nagizu emendik!

—Ondo dago —esan eban gizonak, sutan egoan txabolearen atea idegi eta leoiari sutatik urteten izten eutsola,

Eta ez aiztu inoz be: Leoiak izan beitez piztien erregeak, baiña ez gizonenak.

† OLAZAR´tar Martin´ek